

AUDIT PROGRAMA

Kalitatea Bermatzeko Sistemen ezarpena Ziurtatzeko Gida

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	3
2. PROGRAMA BESTE ERREFERENTZIA ETA EBALUAZIO-PROGRAMA BATZUEKIN LERROKATZEA	4
3. ZIURTATZE-PROZESUA	8
4. ZIURTATZE-BATZORDEA	16
5. ZIURTAGIRIA ERABILTZEKO BALDINTZAK	17
6. KEXA, IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIOEI ERANTZUTEA	18

1. AURKEZPENA

2007. urtean, unibertsitateei AUDIT programa aurkeztu zitzaizen programaren diseinu-fasean, eta 2013an, aldiz, Kalitatea Bermatzeko Sistemen ezarpena ziurtatzeko fase pilotuari hasiera eman zitzaion. Prozesu horri jarraipena emateko eta alde zurrerako esperientzia aintzat hartuta, dokumentu hau argitaratzea erabaki dugu, Kalitatea Bermatzeko Sistemen (KBS) ezarpena ziurtatzeko prozesuaren ezaugarri eta faseak deskribatzeko.

Honako hauek dira gida honen oinarritzko helburuak:

- Ziurtatze Eredu bat diseinatu eta abian jartzea, zentroek kalitate-ziurtagiri bat lortzeko aukera izan dezaten, beren Kalitatea Bermatzeko Sistemak ezartzean lortutako heldutasun-maila onartzeko eta jendartean zabaltzeko.
- Zentroen eskura orientazio jakin batzuk jartzea, ematen dituzten irakaskuntzei dagokienez Kalitatea Bermatzeko Sistema zentroan zenbateraino ezarri den ebaluatzeko lagungarri, sistema hobetzeko helburuarekin.
- Ebaluatzaile taldeen eskura erreferentzia jakin batzuk jartzea, beren zeregina modu ordenatu, objektibo eta homogeenan garatzeko aukera izan dezaten.

Sistemen ezarpena ebaluatuko da AUDIT Programaren dokumentazioan ("Directrices, definición y documentación de Sistemas de Garantía Interna de Calidad de la formación universitaria"/"Unibertsitate-prestakuntzaren Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemen jarraibideak, definizioa eta dokumentazioa") jasotako irizpide eta jarraibideak erreferentziatzen hartuta. Hortaz, KBSak ongi ezartzen direla eta duten eraginkortasun-maila egiaztatu nahi da azken batean.

KBSak ziurtatzeko prozesua bat dator Unibasq-ek titulazio ofizialak ebaluatzeko garatutako beste batzuekin (egiaztapena baimentzea, egiaztatzea, haren segimendua egitea eta berritzea), unibertsitateek egindako ahaleginetan sinergia bat bilatzen delako azken finean, ezarritako KBSen eta ematen dituzten titulazio ofizialen egokitasuna erakusteko.

Nabarmentzekoa da AUDITen arretagune nagusia KBSan bildutako prozesuak kudeatu eta hobetzeko eskema orokorra dela, eta titulazioak ebaluatzeko programak, aldiz, egiaztatutako memorietan zehaztutakoa betetzeaz arduratzen direla, ikuspegi akademiko bati jarraikiz. Hala, KBSen ziurtatzearen bidez tituluen ebaluazioan baliabideak eta denbora aurrezteko aukera eman nahi zaie unibertsitateei, alde zurreratik deskribatutako helburuen osagarri.

(“Unibertsitate-prestakuntzaren Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemak diseinatzeko gida”¹ dokumentuan jaso denez, programaren jarraibideak lerrotatu nahi izan ditugu E4 taldeak (European Association for Quality Assurance in Higher Education (ENQA), European Students’ Union (ESU), European University Association (EUA), European Association of Institutions in Higher Education (EURASHE)) Education International (EI), BUSINESSEUROPE eta European Register of Higher Education (EQAR) erakundeekin lankidetzan egindako ESG-en (European Standards and Guidelines) 2. kapituluko 1. atalean jasotako jarraibideekin.

Halaber, Agentziek garatzen dituzten irakaskuntzak ebaluatzeko beste programa batzuekin lerrotatzen da AUDIT programa. Lege-baldintza gisa sortu dira programa horiek, fase guztietan –egiaztapena baimentzea, egiaztatzea, haren segimendua egitea eta berritzea– titulazioen kalitatea bermatzeko asmoarekin:

1. taulan ikus dezakegu, labur-labur, AUDIT programan bildutako jarraibideen eta ESG-en 1. kapituluko irizpideen arteko lotura.

Ildo horretan, eta Gidaren aurkezpenean nabarmendu denez, Unibasq-ek beharrezkotzat jotzen du garatzen dituen programen artean sortzen diren elkarrekiko onurak ahalik eta ondoen aprobetxatzea, unibertsitateek egindako ahaleginak minimizatzeko.

¹ANECA: http://www.aneca.es/content/download/9521/110565/file/audit_doc01_guidiseno_070621.pdf

ESG	AUDIT
1.1. Kalitatea ziurtatzeko politika 1.10. Kalitatearen kanpo-ziurtatze ziklikoa	1.0 jarraibidea. Zentroaren kalitate-politika eta kalitate-helburuak definitzeko modua
1.2. Programak diseinatu eta onartzea 1.9. Programen etengabeko segimendua eta aldizkako ebaluazioa	1.1 jarraibidea. Zentroko prestakuntza-programen kalitatea bermatzeko modua
1.3. Ikaslea dago irakaskuntzaren, ikaskuntzaren eta ebaluazioaren erdian 1.4. Ikasleak hartzea, haien bilakaera, haiek onartzea eta ziurtatzea	1.2 jarraibidea. Zentroko irakaskuntzak ikasleei bideratzeko modua
1.5. Irakasleak	1.3 jarraibidea. Zentroko langile akademikoen kalitatea bermatzeko eta hobetzeko modua
1.6. Ikasteko eta ikasleei laguntzeko baliabideak	1.2 jarraibidea. Zentroko irakaskuntzak ikasleei bideratzeko modua 1.4 jarraibidea. Zentroko baliabide materialak eta zerbitzuak kudeatzeko eta hobetzeko modua
1.7. Informazioaren kudeaketa	1.5 jarraibidea. Zentroko emaitzak aztertzeko eta kontuan hartzeko modua
1.8. Jendurreko informazioa	1.6 jarraibidea. Zentroko tituluei buruzko informazioa argitaratzeko modua

1. taula: ESG-en 1. kapituluko irizpideen (2015) eta AUDIT programaren jarraibideen arteko harremana

2.1 Ziurtagiria lortuz gero, titulazioen ebaluaziotik onartuko diren alderdiak

Aurreko atalean esan dugunetik ondorioztatzen da AUDIT kalitate instituzionalaren programa eta irakaskuntzak ebaluatzeko programak zenbait puntutan hurbiltzen direla. Horregatik egokitzat jo dugu zentroentzako jardun-esparru argi bat ezartzea. Horren arabera, KBSaren ziurtagiria eskura izaki, beren txosten edo bisitetan zentroek ez lukete zertan berriz ere ezer argudiatu jarraian aipatutako alderdi jakin batzuen inguruan, KBSaren ziurtatze-prozesuan argi geratuko zatekeelako honako hauek ongi betetzen dituztela:

- 1. irizpidea: Antolaketa eta garapena.
 - 1.2. Definitutako egreso-profilak (eta ikasketa-planean duen hedadura) garrantzitsua izaten jarraitzen du eta eremu akademikoaren, zientifikoaren eta profesionalaren baldintzen arabera eguneratuta dago.
 - 1.5. Araudi akademikoak modu egokian aplikatzen dira, errendimendu akademikoko adierazleen balioak hobetzea ahalbidetuz.
- 2. irizpidea: Informazioa eta gardentasuna.
- 3. irizpidea: Kalitatea Bermatzeko Sistema.
- 4. irizpidea: Langile akademikoak.
 - 4.3. Irakasleak tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta eguneratzen dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari modu egokian ekiteko moduan.
- 5. irizpidea: Laguntzaileak, baliabide materialak eta zerbitzuak.
 - 5.4. Matrikulatutako ikasleen eskura jartzen diren laguntzarako zerbitzuak eta orientazio akademikoko, profesionaleko eta mugigarritasunerako orientazioko zerbitzuak tituluari dagozkion gaitasunei eta modalitateari egokituta daude eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ahalbidetzen dute.

Hala, beren KBS ziurtatzeko eskaera dela medio zentroek ebaluazioa jaso ondoren ziurtatze hori lortzen badute, ziurtagiriaren indarraldian berritzeko prozesuaren eraginpean jarri behar diren tituluatarako ez da Gida honetan zehaztutako irizpideei buruzko dokumentaziorik aurkeztu beharko, eta irizpide horiek egiaztapena berritzeko programa arautzen duen dokumentazioan jasoko dira; nahikoa izango da egingo den autotxostenean adieraztea titulazio hori ematen duen Zentroak bere sistemaren ziurtagiria lortu zuela, (___) kode-zenbakiarekin eta (___) egunean. Aurrekoa alde batera utzi gabe, hainbat informazio-iturriren bitartez Unibasq-ek zentroan ematen diren tituluetan gorabeherak detektatzen baditu, egiaztapen-ereduan ezarrita egonik eraginpean hartuta dauden irizpideak ebaluatuko ditu, zentroak AUDIT ziurtagiria eduki edo ez.

2.1.1.Esparru arautzailea

Egungo araudiari jarraikiz, Unibasq-ek alde zuzenetik erakutsitako onarpena emango die legez ebaluatu behar dituen titulazioei. Nolanahi ere, beste agentzia batzuekin banako akordioak ere egin ditzake, agentzia horien eskura utziz titulazioen egiaztapenaren segimendua egiteko eta berritzeko abian jarri dituzten programetan AUDIT ziurtagiriaren balioa onartzeko aukera, edota haiekin elkarlanean Gida honetan jasotako ziurtatze-jarduerak aurrera eramateko, onarpen-sistema bera edo haren baliokide bat erabiliz.

2.1.2.Beste erreferentzia batean oinarritutako KBS baten ziurtagiria alde zuzenetik eman izana arrazoitzea bidezkoa den titulazioen ebaluazio-programetako atalen zerrenda.

Zentroak ziurtagiri bat badauka AUDIT programan oinarrituta ez dagoen kalitatea edo bikaintasuna kudeatzeko sistema baten ezarpenari lotuta (esaterako, ISO 9001, Bikaintasun Eredua eta abar) aurreko atalean aurreikusitakoa ez da aplikatuko, hau da, agentziak, irakaskuntzak ebaluatzeko programen dimentsioak onartzeko, AUDIT Programaren ziurtagirian oinarritzen dira bakar-bakarrik, kasu horretan bakarrik geratzen delako agerian jarraibideak eta jatorri komuna ESGen lehen kapituluan deskribatutakoarekin bat datozela.

2.1.3.Ziurtagiriaren norainokoa


AUDIT programak ikuspegi instituzionala dauka, eta beraz unibertsitateetako zentroei dagokie ziurtagiria, oro har, eta ez titulazioei bereziki.


Hala, tituluak zentro batean baino gehiagoan ematen badira (atxikitako zentroak barne adibidez), unibertsitateak ezin izango du jendaurrean adierazi titulu horiek KBS ziurtatu baten eraginpean daudela, baldin eta tituluak ematen duten zentro guzti-guztiak ziurtatuta ez badaude.

Unibertsitate arteko titulazioak edo departamentu artekoak ziurtatzetik kanpo geratuko dira, salbu eta egiaztatzen bada titulazio horiek KBS ezarri izanaren AUDIT ziurtagiri baten jabe diren zentroetan ematen direla.

3. ZIURTATZE-PROZESUA

Beheko diagramak prozesu operatiboaren ikuspegi orokorra ematen du. Beheko atalek xehetasunak ematen dituzte, eta atal horiei guztiei buruzko informazioa zabaltzen dute.





3.1 Deialdi publikoa, onartzeko eskaera eta parte hartzeko baldintzak.

Unibasq-ek deialdi bat argitaratuko du urtean, zentroek KBSren ezarpena ziurtatzeko prozesuan parte hartzeko eskaera aurkez dezaten.

Prozesuan parte hartu nahi duen zentroak KBSren Ezarpena Ziurtatzeko Eskaera bete beharko du (I. eranskina), Unibasq-en webgunean argitaratuta dagoena (www.unibasq.org).

Eskaera Unibasq-i bidali beharko zaio, info@unibasq.org helbide elektronikora edo, posta arruntez, Agentziaren helbidera.

Ezarritako KBSren ziurtagiria eskatu ahal izateko, zentroak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- AUDIT programaren irizpideen arabera diseinatutako eta Agentziak positiboki ebaluatutako KBS baten jabe izatea.
- KBS ezarri izana gutxienez sei hilabete ziurtatzeko eskaera egin baino lehen.
- Egresatuak edo titulazioaren azken ikasturtea egiten ari diren pertsonak dauzkaten titulazio ofizialak (graduak, masterrak eta/edo doktoregoak) edukitzea.
- Dagokion ziurtagiria eskatzea, Gida honetan aurreikusitako dokumentazio-ereduak erabiliz.
- Gida honetan deskribatutako lan-metodologia eta -baldintza guztiak onartzea

Besterik adierazi ezean ulertuko da KBSren norainokoaren barruan daudela Zentro bakoitzean ematen diren titulazio guztiak.

3.2 Prozesuaren plangintza

Behin deialdia itxita dagoenean, Agentzia zentroarekin harremanetan jarriko da, ziurtatzeko bisitaldia gutxi gorabehera noiz egingo litzatekeen eta bisitaldi horren nondik norakoak eta norainokoa adosteko.

Ahal den neurrian zentroak proposatutako epe eta baldintzetara egokituko da Agentzia, baina prozesua gehienez ere sei hilabete atzeratu ahal izango da, deialdia ixten den egunetik ziurtatzeko azken txostena eman arte (hala badagokio, uztaila, abuztua eta abendua zenbaketa horretatik kanpo geratuko dira).

3.3 Ebaluazio-taldeak

Adostutako plangintzatik abiatuta, taldea osatuko duten ebaluatzaileak hautatzeari ekingo dio Unibasq-ek.

Talde bakoitzeko kideak hautatzeko, kontu-ikuskari gisa jardungo dutenen jatorri profesionala edo profesionala hartuko du kontuan agentziak, eta ziurtatzea eskatu duen Goi-mailako Hezkuntzako Erakundearen autonomia-erkidego bereko Goi-mailako Hezkuntzako Erakundeetako pertsonarik ez da hautatuko.

Esleitzeko proposamena zentroari jakinaraziko zaio (izen osoa, eremu profesional eta geografikoa, eta kategoria kontu-ikuskarien taldearen barruan), eta 5 eguneko epea emango zaio nahi izanez gero ezespen justifikatuak aurkezteko.

Oro har, ebaluazio-talde bakoitzak lau kide izango ditu:

- Kalitatea bermatzeko sistemetan adituak izaki KBSk ebaluatzeko, titulazioen kalitatea ebaluatzeko prozesuetan edo goi-mailako hezkuntzako erakundeetan esperientzia duten bi pertsona. Bi pertsona horietako bat Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko unibertsitate bateko irakaslea edo ikertzailea izango da, eta ebaluazio-taldeko presidentea izango da. Beste bat bokal profesionala izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan edo kanpoan jardun ahal izango du, betiere ebaluatu beharreko zentroarekin zuzeneko harremanik ez badu.
- Agentziako teknikariak izaki, KBSen ebaluazioan eta goi-mailako hezkuntzako titulazio edo erakundeen kalitatearen ebaluazioan esperientzia duten pertsonak.
- KBSen ebaluazioan eta goi-mailako hezkuntzako titulazio edo erakundeen kalitatearen ebaluazioan esperientzia duen graduako, masterreko edo doktoregoko ikasle bat.

Agentziak hautatutako pertsonak kode etiko bat sinatu beharko dute, eta horren arabera, besteak beste, ebaluazio-prozesuaren garapenean lortutako informazioa isilpean gorde beharko dute nahitaez.

3.4 KBSn bildutako aldaketei buruzko txostena

Zentroak txosten labur bat egingo du, II. eranskinean aurreikusitako ereduari jarraikiz (KBSren aldaketei buruzko txostena), Unibasq jakinaren gainean jartzeko KBSren dokumentazioan izandako aldaketa nagusien inguruan

dokumentazio horrek ebaluazio positiboa jaso zuenez geroztik ezarpena ziurtatzeko eskaera aurkeztu arte.

KBSren dokumentazioan aldaketak egitea egokitzat eta komenigarritzat jotzen bada ere sistema hori ezartzeko prozesuaren barruan, funtsezko aldaketak badira², justifikatu beharko dira betiere.

Txosten hori posta elektronikoz bidaliko zaio Agentziari, hurrengo fasea baino lehen edo aldi berean.

3.5 KBSren dokumentazioa eskuratzea errazten du/ bidaltzen du

Ezarritako KBSren barruan egonik zentroko webgunean jendaurrean eskuragarri ez dagoen dokumentazioa eskuratzeko aukera eman behar du zentroak. Zentroak ziurtatuko du sarbideek aukera ematen dutela programaren jarraibideei erantzuteko moduko oinarritzko dokumentuak kontsultatzeko.

Sistemaren prozedura bakoitzaren erregistro esanguratsuenak eta haien erregistro guztien zerrenda eskuratzea (erabiltzailea eta pasahitza) edo aldeztatik bidaltzea (info@unibasq.org) eskatuko da, hilabeteko aurrerapenarekin, jarraian haiek aztertu ahal izateko. Erregistro horiek hamabost eguneko epean aztertuko dira, eta harrez geroztik, behar diren ebidentzia osagarriak eskatzeko aukera izango da. Zentroaren dokumentu-kudeatzailea oso-osorik eskuratzeko (irakurketa moduan, ahal dela), aldeztatik aipatutako erregistroen aldeztatik aurreko bidalketa ez litzateke beharrezkoa izango.

3.6 Aldeztatik aurreko dokumentu-azterketa

Talde ebaluatzaileak KBSren dokumentazioaren aldeztatik aurreko azterketa egingo du. Dokumentazioa oraindik ere balioduntzat jotzen bada, ziurtatze-prozesuari jarraipena emango zaio. Hala ez bada, ondorio horren justifikazioak azalduko ditu zehatz-mehatz, eta txosten bat egingo du, Agentziak zentroari bidaliko diona hobekuntza egokiak sar ditzan.

Justifikatu gabeko hutsune larririk detektatzen bada, Agentziak ziurtatze-prozesua eten dezake hutsune horiek konpondu arte. Kasu horietan, zentroari hilabete batetik hiru hilabetera bitarteko aldia emango litzaiotke hutsune

²Funtsezko aldaketa: Testuinguru honetan, KBSren dokumentazioaren egituraren, norainokoaren edo edukien oinarritzkoenari eta garrantzizkoenari eragiten diona da.

horiek konpontzeko. Ziurtatze-zikloa guztiz zenbatzeko denbora (sei hilabete) eten egingo litzateke kasu horretan.

Ongi arrazoitutako kasuetan (AUDIT erreferentziaren jarraibideetako bat edo batzuk argi eta garbi eta funtsezkoan betetzen ez badira adibidez), diseinuaren beste ebaluazio orokor bat eska liteke.

3.7 Kanpo-bisitaldia

Oro har, talde ebaluatzailea zentrorra bertaratuko da bisitaldia egitera, zentroak eta Agentziak adostutako programazioan bildutako egunetan.

Agentziak eskainitako jarraibideetatik abiatuta (Agentziak eta zentroak plangintza orokorra adostuko dute) eta gutxienez bi asteko aurrerapenarekin, Unibasq zentroarekin harremanetan jarriko da bisitaldiaren behin betiko agenda finkatzeko: solaskideak, ordutegiak, bisitatu nahi dituen zentro eta instalazioak eta abar.

Informazioa jasotzeko, dokumentuak aztertzeaz gain zentroko zuzendari taldearekin, kalitatea bermatzeko batzordearekin, eta Kalitate Unitate Teknikoko kide eta tituluen koordinatzaileekin jarriko gara harremanetan, baldin eta kalitatea bermatzeko batzordeko kide ez badira. Talde ebaluatzaileak erabakiko du irakasle eta ikertzaileekin, administrazio eta zerbitzuetako langileekin, ikasleekin, enplegu-emaileekin eta gainerako interes-taldeekin harremanetan jarri edo ez eta instalazioak bisitatu edo ez.

Behar diren ebidentziak bilduko ditu talde ebaluatzaileak, entzunaldiak eginez, dokumentu eta erregistroak euskarri fisikoan eta/edo informatikoan aztertuz, eta unibertsitatean egindako jarduerak zuzenean behatuz. Kanpo-bisitaldia amaitzean taldeak txosten bat egingo du (ikus III. eranskina, kanpo-ebaluazioaren txostenari buruzkoa), besteak beste KBSren indarrak, detektatutako desbideratzeak eta hobetzeko gomendioak jasota.

Kanpo-bisitaldia egikaritzeko fasean, zentroak talde ebaluatzaileari baimena emango dio eskatutako aplikazio edo datu-base guztietan sartzeko, inolako murrizketarik gabe, betiere KBSren funtzionamenduarekin lotuta badaude.

Behin bisitaldia amaiturik, talde ebaluatzaileak itxiera-bilera bat egingo du, eta, bilera horretan, zuzendariei eta kalitatea bermatzeko batzordeari ahozko informazioa emango die prozesuaren garapenaren inguruan.

Kanpo-bisitaldiaren ondoren, Unibasq-ek zentroari kanpo-ebaluazioaren txostena helaraziko dio. Zentroak 20 egun naturaleko epea edukiko du haren

edukiaren aurkako alegazioak aurkezteko, eta, beharrezkoa bada, hobekuntza-ekintzen plana eransteko.

3.8 Hobekuntza-ekintzen plana egitea

Txostenaren barruko alderdi jakin batzuk gorabehera hobekuntza-plana egitea beharrezkoa bada, zentroak plan hori egingo du eta Agentziari bidaliko dio. Plan hori kontuan hartuko da prozesuan sortutako gainerako dokumentuekin batera, KBS ziurtatzeari buruzko erabaki bat hartzeko.

Hobekuntza-ekintzen planak honako informazio hauek jaso behar ditu gutxienez:

- Hobetu beharreko alderdiaren arrazoiak aztertzea
- Garatu beharreko hobekuntza-ekintzak
- Segimendu-adierazleak
- Ezarpen-epea
- Ezarpenaren arduradunak

Zentroak IV. eranskinean jasotako ereduak erabili ahal izango du plan hori aurrera eramateko.

3.9 Ziurtagiria ematea

Ebaluatutako zentroari buruzko dokumentu-espedita osoa AUDIT Batzordeari bidaliko zaio, ziurtagiria ematea edo ez ematea balioetsi dezan.

Unibasq-ek gutun bat bidaliko dio zentroari emaitzaren berri emateko, eta txosten bat ere helaraziko dio, erabaki hori babestu duten arrazoiak zehaztuta.

Txostena jasotzen duenez geroztik, zentroak 10 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko. Epe hori amaiturik zentroaren eskutik erantzunik jaso gabe jarraitzen bada, Agentziak txostena onartutzat emango du. Alegazioak aurkezten badira, Agentziak aztertu egingo ditu, eta talde ebaluatzaileari horiei buruz kontsultatzeko aukera ere izango du. AUDIT Batzordeak lortutako ondorioak eskura, Agentziak zentroari azken txostena helaraziko dio.

Agentziak erregistro espezifiko bat sortuko du haien KBSren ziurtagiria jaso duten unibertsitate eta zentroen izenekin, publikoa eta webgunean eskuratzeko modukoa.

3.10 Ziurtagiriaren segimendua eta berritzea

Unibasq-ek emandako ziurtagiriak bost urteko balioa izango du, eta bost urte gehiagoz luzatu ahal izango da beste kanpo-ebaluazio bat gaindituz gero.

Ziurtagiriaren indarraldian, Agentziak haren norainokoa aldatzeko eta/edo eteteko/atzera botatzeko eskubidea izango du, baldin eta:

- Zentroaren KBS ziurtatzean indarrean zeuden baldintzen aurka doazen aldaketa atzeraezinak gertatzen badira
- Hobekuntza-planak justifikaziorik gabe ez direla betetzen egiaztatzen bada
- Ziurtagiria gaizki erabiltzen bada

Urtero-urtero zentroak Agentziari hobekuntza-ekintzen plana bidali behar dio, eta urteko kudeaketa-txostenaren edo antzeko beste baten barruan bildu ahal izango da plan hori. Unibasq-ek KBSen ezarpenaren garapenaren segimendua egin ahal izango du, bereziki KBS ziurtatzeko hobekuntza-plana egitea behar izan duen kasuetan. Emaitzez gain, zentroaren kalitate-politikaren eta -helburuen bilakaera erakutsi beharko du, baita interes-taldeei egindako kontu-ematearen ebidentziak ere. Dokumentu-azterketa osagarri bat edo kanpo-bisitaldi bat egitea eska lezake segimendu horrek.

Ziurtagiriaren segimendu- eta berritze-jarduerak planifikatu eta zehazteko, Agentzia zentroarekin harremanetan jarriko da, urtean behin eta behar adinako aurrerapenarekin.

4. ZIURTATZE-BATZORDEA

Unibasq-en Ziurtatze Batzordea Agentziaren AUDIT Batzordea da, unibertsitate-eremu akademikoaren edo profesionalaren adituek osatua. Unibertsitatearen kalitate instituzionalarekin eta/edo beste eremu batzuetako erakundeetan kalitatea kudeatu eta ziurtatzearekin dute zerikusia aditu horiek. Unibasq-en webgunean argitaratu da batzordearen osaera.

4.1 Izaera eta eginkizunak.

Ziurtatze-prozesuei behar duten berrespen metodologikoa eta aditua emateko eginkizuna dauka Ziurtatze Batzordeak.

Batzorde horrek onartutako txostenak zentroari jakinarazten zaizkio jarraian, eta Agentziaren webgunean argitaratzen dira.

Ziurtatze Batzordeak honako eginkizun hauek dauzka:

- Agentziak bidalitako espedientearen dokumentazioa aztertzea. Ebaluatutako zentro bakoitzeko honako hauek bilduko dira dokumentazio horren barruan, hala dagokionean:
 - KBSren dokumentazioaren ebaluazio-txostena
 - Kanpo-ebaluazioaren txostena.
 - Hala badagokio, Zentroak egindako hobekuntza-ekintzen plana
 - Agentziako teknikari taldeak eta/edo talde ebaluatzaileak eskatutako informazio osagarria/argigarria
 - Segimendua egiteko urteko kudeaketa-txostena edo antzekoa
- Ziurtatze-txostena egitea, non adierazi eta justifikatzen den Unibertsitateak egindako eskaerari dagokionez Batzorde horrek hartutako erabakia: eskatutako Zentro bakoitzari ziurtagiria Ematea edo Ez Ematea.
- Berritzeko ziurtagiriak ematea edo ez ematea erabakitzea, egindako dokumentu-espedientearen xede horretarako emandako informazioa aztertu ondoren.
- Ziurtagiri baten norainokoa aldatzea, etetea edo bertan behera uztea erabakitzea, baldin eta ziurtagiria ematean indarrean zeuden baldintzen aurkako aldaketak gertatzen badira.
- Ziurtatze-espedientea eztabaidatzeko egindako bileraren garapenari eta emaitzei buruzko akta egitea.
- Egokitzen jotzen diren hobekuntza-ekintzak proposatzea.

5. ZIURTAGIRIA ERABILTZEKO BALDINTZAK

KBSren ezarpenari emandako ziurtagiria erabiltzeko eta jendaurrean erakusgai jartzeko aukera izango du zentroak, betiere honako baldintza hauek betetzen baditu:

- Unibasq-ek eman du ziurtagiria, eta bere balio-denboraren barruan dago
- Ziurtagiria unibertsitatearen edo haren eraginpeko edozein zentroren webguneetan edo dokumentu instituzionaletan erakusgai jartzen bada irudian bertan irakurtzeko moduan, edo haren aldameneko toki batean, haren norainokoa erakutsiko da, eta, bereziki, zer zentro hartzen dituen eraginpean.
- Ziurtagiria titulazio jakin bati lotuta ageri daiteke, baldin eta hura ematen duten zentro guzti-guztiak ziurtagiri horren eraginpean badaude. Nolanahi ere, eta titulazioa ziurtatzen ari delako ideia faltsua ez ematearren, hobe da honako idazkun hau eranstea: "Kalitatea Bermatzeko Sistema ziurtatu bati jarraikiz ematen da titulazio hau".

Halaber, zentroak idazki bidez jakinaraziko dio Agentziari erakundean izandako edozein aldaketa, baldin eta ziurtagiriaren norainokoa edo balioan eraginik izan badezake³, eta Agentziak idazki bidez erantzungo dio gehienez ere 20 eguneko epean haren balioaren jarraipenaren inguruan.

Bestetik, KBSren ezarpenari buruzko AUDIT ziurtagiri baten jabe diren unibertsitate eta zentroen zerrenda zehatza jasoko du Agentziak bere webgunean, baita Agentziak emandako txostena ere, hura eman izanaren justifikazio eta guzti.

Azkenik, ziurtatutako zentroek ziurtagiriak aldi baterako eteteko, bertan behera uzteko edo ez berritzeko eskaera egin dezakete, unibertsitateko errektoreak Agentziako zuzendariari gutun bat idatziz, besterik gabe.

³Zentro batean tituluak iraingitzeak edo titulu berriak sartzeak ez luke eraginik izango ziurtagiriaren norainokoa edo balioan, baldin eta KBSn aurreikusitakoa betetzen bada.

6. KEXA, IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIOEI ERANTZUTEA

Arrazoi justifikatuengatik ebaluatzaileak ezesteko (ikus Unibasq-en Etika eta Eskubide Kodearen 12. eta 13. artikulua) eta egindako txostenen aurkako alegazioak aurkezteko aukera ez ezik, prozesuan parte hartzen duten zentro guztiek edozein kexa, erreklamazio edo iradokizun egin dezakete Agentziaren edo Agentziako edozein kideren ekintzen inguruan, Unibasq-en webgunean adierazitako helbide elektronikora idazkia bidaliz, arrazoia argi eta garbi adierazita eta ahalik eta xehetasun gehien emanda.

Unibasq-en Etika et Eskubide Batzordeak dagokion azterketa egin ondoren, Agentziak banako erantzun arrazoitua emateko konpromisoa hartu du, eta, hala badagokio, horren ondorioz hobekuntza-ekintzak har ditzake Agentziaren barruan.